

Gazteak ikasketa selektiboak egitera bultzatzeko internet orri bat sortu dute lau euskal gaztek

Argitaratua: 2013-12-23 13:41:15

Euskal gazteak eskola handietan ikasketak egitera bultzatzeko, lau gaztek internet orri bat sortuko dute laster. Lau gazte horiek ikasketak laster bukatuzekotan daude edo justu bukatu dituzte. Beraien [internet orrian](#), eskola handi guztiak sailkatuak dira, bai zientifikoak, bai literarioak, bai politikoak... Parisen zientzia politikoak ikasten ari den Bixente Etcheçaharreta proiektua muntatu duen lau gazteetarik bat da. Berak dionez, Euskal Herrian baxoa lortzen dutenen ehunekoa Estatu frantsesean lortzen dutenena baino altuagoa da. Baina gazte gutxi unibertsitate ibilbide selektibo batean segitzen dutela dio Etcheçaharretak. Zergati hori urruntasun geografiko eta sozialarengatik esplikatzeko du, baita informazio eta eredu eskasarengatik. Internet orria behar horiei erantzuteko plantan ezarria izanen da, hainbat laguntzailek sare bat osatzeko gazteak laguntzeko. Beraien artean, Médicis sari literarioa irabazi duen Marie Darrieusecq. "Gazteei esan nahi diegu ausartu behar direla eskola handietako unibertsitate ibilbide selektiboetan sartzea, ez dituztela beraien xedek murriztu behar".



Marie Darrieusecq idazlea. Argazkia Wikipedia.

8+1 [Gazteak ikasketa selektiboak](#)

0

Komentarioak

Komentarioa idatzi

IZENA (beharrezkoa)

E-MAIL (ez da publikatuko) (beharrezkoa)

Webgunea

Zenbat da hiru gehi lau?

Bidali

bideoa



Tantaz Tanta Garazitik Bilbora. Urtarrilaren 11an euskal presoen eskubideen aldeko ekitaldi jendetsua egingen da Bilboko karraketan. "Tantaz tanta itsasoa gara" lemapean egun osoan zehar ekimen ezberdinak egingen dira. Goizeko 11:00etatik goiti Areatzako plazan, 17:30etan bi olatu egingen dira eta 18:30etan "Itsasoa" izanen da. Euskal Herri osotik egun horretarako autobusak antolatzen ari dira eta mota guztietako deialdiak egingen ari dira. Hona hemen Garazin egin dutena.

Youtube

